

Txapelketaren Oinarriak

Aurtengo Eztabaida Txapelketan bost unibertsitate hartuko dute parte. Bost taldeko txapelketa aurrera ateratzeko txapelketa eredia honako hau izango da: Zozketaz bost taldeetatik bi aukeratuko dira. Bi hauekin aurrefase bat egingo da. Fase honetan talde galtzaileak txapelketatik kanpo geldituko da. Irabazten duen taldea, bestei hiru taldeekin, kopa formatu bat egingo dute, hau da, bi finalerdi eta hauen garaitzaileekin final bat.

Zozketa era honetan egingo da. Bost unibertsitateen artean 1, 2, 3, a eta b zozkatuko dira. Lehenengo errondan a-bren kontra izango da, irabazten duena 4 zenbakia izango du. Lehenengo finalerdian 1-2ren kontra izango da. Bigarren finalerdia 3-4ren kontra. Finalean bi finalerdien irabazleek hartuko dute parte.

Taula honetan informazio guztia laburbiltzen da:

		Taldea	Irabazlea	Ordun
1. Erronda	kanporaketa	a-b	4	10:00-10:40
2. Erronda	1. Finalerdia	1-2	F1	10:40-11:20
3. Erronda	2. Finalerdia	3-4	F2	11:20-12:00
4. Erronda	Finala	F1-F2	Irabazlea	12:40-13:20

Antolaketa taldeak ahalegina egingo du eztabaida bakoitza epaitzen duten epaileak beste unibertsitatekoak izateko. Epaimahaian parte hartu ahal duten epaileen kopurua ez dago zehaztuta. Antolaketa taldeak, gutxienez hiru epaile lortuko ditu. Aurre faseetan beti ere hiru izateko ahalegina egingo da. Dena den, antolaketan egon daitezkeen arazoak direla medio antolaketa taldeak hartu beharreko erabakian hartzeko aukera izango du txapelketa era egoki batean aurrera atera ahal izateko, bai epaileen jatorriari dagokionez bai epaile hauen kopuruari dagokionez.

Lehenengo errondan, kanporaketan, 1,2 eta 3 taldeen unibertsitateko epaileak epaituko dute. 2. errondan, lehenengo finalerdian, a eta b taldeen unibertsitateen epaileak izango dira. 3. errondan, 2. finalerdian, 1eta2 taldeen unibertsitateko epaileak izango dira. Finalean finalera iritzi ez diren unibertsitateen epaileak izango dira. Unibertsitateetako epaileak ez ezik gizarteko beste arloetatik etorritako epaileak izan daitezke epaimahaikideak.